

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2011ko otsailaren 18a. VIII. urtea. 2.177. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Jose Antonio Gabirondo Gazteluko baserrian sega pikatzen. A. IMAZ

Sega desagertzeko arriskuan dagoela dio ikerketa batek

Xabier Etxepare irundarrak segalaritzaren inguruko tesia aurkeztu du eta bertan, azken 50 urteetako gora beherak aztertzen ditu

Sega nola erabili behar den erakusteko bi DVD atera ditu Etxeparek; etorkizunari begira klub baten beharra dagoela ondorioztatu du **06**

Villabonako Gurea aretoan euskaraz ariko dira bakarrizketan

Iragan astean hasi zen lehiaketaren bigarren saioari 22:30ean ekingo diote; lehen finalerdiaren ondoren, Ione Gorostarzu berastegierra finalean da **03**

Tolosako Inauterietako txoznak Alondegian egongo dira

Azken urteetan txoznagunea Euskal Herria plazan egon da; ekitaldiz betetako egitaraua prestatu dute, lehena Ostegun Gizeneko txupinazoa izango delarik **07**

AurrezAurre jardunaldiak aurkeztu dituzte Tolosan

Otsailaren 23an, 24ean eta 25ean antolatu dituzte ekimenak; martxoaren 18an genero performance-a izango da hizpide **02**



Josebe Iturrioz, Irene Larraza eta Onintza Lasa. I. LURKIZU

Sagardoaren Txapelketa berrian jokatu du Zeberio II.a elduaindarrak

Oriamendi 2010 enpresak sagardotegien laguntzaz antolatu du erremonteko sari berritzaile hau; Patxi Zeberioi Barrenetxea IV. arekin jokatu du **02**



Muñazabal
MUEBLES - ALTZARIAK

San Ignacio, 2 • 20400 TOLOSA
tel/fax : 943 65 17 61



logelak • liburutegiak • sofak • koltxoak • neurriko altzariak • sarrerak • sukaldeak • dendatako altzariak • etxebizitza reformak • proiektuak ...



Josebe Iturrioz, Onintza Lasa eta Irene Larraza prentsaurrekoan. HITZA

‘AurrezAurre’ jardunaldiek itxuraldatzearen jokoa izango dute aurten oinarri

«Inauterien transgresio izaeraren» haritik genero performancea eta trabestismoa ere izango dira hizpide

Euskal Herri mailan «aitzindari izango da ekimena», eta egun feminismo gaietan punta-puntako etzabaidak sortzen dituzten gaiak jorratuko dituzte. Artearen irakurketa alternatiboago baten

bidez, Inauterietan kolektiboki praktikatzeko den trabestismoaren mamia hobeto ezagutu ahal izango da, eta eremu honetan nazioarteko prestigioa duten artistak izango dira gurean.

↓ AurrezAurre jardunaldiak

OTSAILAK 23

- **18:00.** Aranburu jauregian hitzaldia: Emakumeak Tolosako inauterietan, *Mozorroa jantzi genueneko*. Oihane Amantegi Uriarte, Maddi Garcia Olaskoaga, Izaskun Entxaurre Txarterriena, Maria Ruiz Torrado, Ainhoa Zabala Arretxe.
- **20:00.** Topic-en antzerkia: *Las Punkis tambien lloran*.

OTSAILAK 24

- **19:00.** Performance-a. Aldikatenea taldea.
- **19:30.** Mahai ingurua: Maite Garbayo, *Performancea eta feminismoa*; Josebe Iturrioz, Per-

formancea, Generoa eta Trabestismoa; Santi Eraso, *Ritos Performativos del carnaval*.

OTSAILAK 25

- **17:00-21:00.** Tailer paraleloak Kultur Etxean: Pantojismoa (Itziar Ziga, nagore Iturrioz), Dran King (Medeak), Fancine feminista (Azucena Veites). Gero, festa: Yogurina, Ocean LeRoy, Furia, Ana Elena Pena, DJ Placida Ye Ye, DJ Diana Aller.

MARTXOAK 18

- **21:30.** Kikara tabernan performance-a: *Corta con el Maltrato*.

Itzea Urkizu Tolosa

Datorren martxoaren 8an ospatuko da Emakumearen eguna. Aurtengoan berdintasunaren aldeko aldarriak Tolosako Inauterietan bateratuko dira, eta hain zuzen ere horregatik erabaki du udaleko Berdintasun sailak inauterietako festa-giroa genero berdintasunaren gaiekin uztartzea. «Inauterien izaera transgresiboari helduz», *AurrezAurre. Transgresioak: Generoa, performancea eta trabestismoa* jardunaldiak aurkeztu dituzte.

Helburu nagusia generoaren inguruko hausnarketa sakon bat sustatzea dela adierazi dute udal ordezkariak, aldi berean «kalitate handiko» programa artistiko zein kulturala garatuz.

Zeberio II.a bihar Sagardoaren Txapelketan

Barrenetxea IV.aren batera, Juaristi-Olazar bikotearen aurka norgehiagoka jokatu dute

Erredakzioa Elduain

Bihar hasiko da lehenengo Sagardoaren Txapelketa Galarreta pilotalekuan. Guztira hamasei pilotarik parte hartuko dute zortzi bikotetan, eta Zeberio II.a elduaindarra izango da parte-hartzaileetako bat.

Antolatzaileek txapelketa berritzailea izango dela nabarmendu dute, eta ikusleagoentzat nahiz pilotarientzat interes handia piztuko duen torneo izango dela.

Pilotarientzat aukera

Oriamendi 2010 enpresak bitaldetan banatu ditu erremontistak, bakoitzean lau bikote osatuz. Aipatzekoa da denboraldian zehar partiduko nagusiak jokatzeko ez dituzten bigarren mailako pilotariek aukera bat eman dietela Sagardoaren Txapelketa honetan, lehen mailako erremontistekin osatuko baitituzte bikoteak. Hain zuzen ere bi-

koteak osatzerakoan irizpide nagusi bezala erabili duten berdintasuna azpimarratu nahi izan du Kike Elizalde antolatzaileak, «modu honetara txapelketa bera erakargarriagoa izango delako».

Zeberio II.ak Barrenetxea IV.aren osatuko du bikotea, eta Urriza-Zubizarreta, Juaristi-Olazar eta Urtaun-Ion izango dituzte talde berean. Beste taldean berri, Matxin IV-Lizaso, Zulaika-San Migel, Endika-Urrutia I eta Agirresarobe-Etxeberria III bikoteak izango dira elkarren artean lehiari.

Bihar emango zaio beraz hasiera, Sagardoaren Txapelketari, bi norgehiagokekin: Zeberio II.ak eta Barrenetxea IV.ak Juaristi eta Olazarren aurka izango dute partida, eta beste taldean Matxin IV-Lizaso bikotea aurrez aurre izango da Zulaika eta San Migelekin.

Lehenengo ospatuko den txapelketa honek zortzi sagardotegiren babes ekonomikoa izango du babesle ofizialaz gain. Honi lotuta, eta publikoaren frontoira erakartzeko aldera, sagardotegi hauetako bezeroek eskaintza berezia izango dute partiduetako sarreraren erosteko: beharpena izango dute, eta sei euroko prezioan eskuratu ahal izango dituzte sarre-



Hamasei pilotarik parte hartuko dute Sagardoaren Txapelketan. HITZA

→ Laburrak

Aiz-Orratzen mozorro lehiaketako izen-ematea

TOLOSA › Datorren otsailaren 26an izango den haurren mozorro lehiaketarako izena emateko epea hilaren 21etik 25era bitarteko izango da zabalik, eta Aiz-Orratz elkartera bertara joan beharko da 18:00etatik 20:00etara.

Haur danborradako kantineren entsegua

TOLOSA › Datozen inauterietan, urteroko moduan, haur danborrada izango da Aiz-Orratz-Velata elkarteak antolatuta. Zaldun-ta bezperan arratsaldeko bostetan irtengo dira haur eta gaztetxoak Geltoki kaletik, eta Trianguloan geldialdia egin ondoren, ibilbidearekin jarraituko dute. Danborradan parte hartuko duten kantinerentzako entsegua bihar izango da 15:30ean, Musika Eskolan.

Saharar herriari buruzko filma astelehenean

POLITIKA › Datorren otsailaren 27an Saharar Errepublikara Arabiar Demokratikoaren 35. urteurren dela eta, Gipuzkoako hainbat herritan *El Problema. Testimonio del pueblo saharaui* film dokumentala eskainiko dute. Eskualdean bi herritan izango da ikusteko aukera: hilaren 21ean Tolosako Leidor aretoan, 20:15ean eta hilaren 24an Ikaztegiatiko Udala Liburutegian, 20:00etan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Sukaldaritza makrobiotikoko oinarrizko ikastaroa

Hilaren 25a izango da izena emateko azken eguna; hitzaldia eta saio praktikoa izango dira bi egunetan

Erredakzioa Aduna

Sukaldaritza makrobiotikoari buruzko oinarrizko ikastaroa antolatu dute Aiztondo Mankomunitate Zerbitzuen bidez. Ikastaroak bi saio izango ditu: alde batetik, sukaldaritza makrobiotikoari buruzko hitzaldia, ideiak eta oinarriak argituko dituzte, eta bestetik, saio praktikoa egingo dute.

Martxoaren 3an, osteguna, eta martxoaren 9an, asteazkena, izango dira bi saioak. 18:30etik 20:30era izango lirateke eta hitzaldia edo lehen saioa, Adunako Kultur Aretoan egingo dute eta, saio praktikoa berriz, Adunako Txulobi elkartean.

Gehieneko prezioa, 60 eurokoa izango da. Taldea aurrera ateratzeko, gutxienez 8 lagun eta gehienez 15 pertsona apuntatu ahaliko dira.

Izena emateko, astearte eta ostiraletan 17:30etik 19:30era, Adunako liburutegira joan behar da edo Aiztondo Mankomunitatearen bulegoko 943 69 39 30 telefono zenbakira deituz. Azken eguna, hilaren 25a, ostirala, izango da.

Kaldereroen jaietan parte hartzeko entsegua, bihar

Hilaren 25eko kaldereroen jaietan parte hartzeko, Alurr Dantza Taldekoek entsegua egingo dute 12:00etan

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako Alurr Dantza Taldeko haurrek, berrikuntza gisa, kaldereroen jaietan parte hartuko dute hilaren 25ean, 18:00etatik aurrera. Horretarako, Alurr taldeak

dantza ikastaro bat emango du bihar, hilak 19, 12:00etan. Alurr Dantza Taldearen lokal zaharretan izango da.

Txararak joko dituen doinuak dantzatzeko dituzte. Eta Ibarrrako Loatzo musika eskolako abesbatzak ere parte hartuko du.

Kaldereroetan parte hartuko duten Alurr taldeko haurren gurasoak eta ibarretan guztiak gonbidatzen ditu Alurr Dantza Taldeak, kaldereroen jaietan parte hartzea; dantza eginez, desfilez, edo kalejiran egonez.

→ Laburrak

Bilboko manifestaziora joateko autobusa

ZIZURKIL › Zizurkilgo ezker abertzaleak autobusa antolatu du bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko. Izena emateko aukera gaur iluntzera bitarte egongo da Iriarte eta Atxulondo tabernetan. Autobusa Joxe Arregi plazatik aterako da 15:30ean. Zizurkilgo ezker abertzaleak herritar guztiak animatu nahi ditu *Bakerantz legalizazioa* lemapean Bilbon 17:30ean hasiko den manifestazio isilera.

'Tres metros sobre el cielo' eta 'Zigortzaileak', Gurean

VILLABONA › Astebururako bi aukera eskaintzen ditu Gurea Zinemak. Larunbatean, 19:30ean eta 22:15ean, *Tres Metros sobre el Cielo* filma ikusteko aukera egongo da. Igan dean, etxeko txikienek euskarazko *Zigortzaileak* filmaz gozatu ahaliko dute 16:30etik aurrera. Eta helduentzat, 19:30ean, *Tres Metros sobre el Cielo* filma izango da. Astelehenean, 21:30ean eskainiko dute *Tres Metros sobre el Cielo* filma.

Zabor tasako errezihoak ordaintzeko azken egunak

IKAZTEGIETA › 2010eko bigarren sei hilabeteari dagokion zabor tasako errezihoak ordaintzeko epea martxoaren 4ean, ostirala, bukatzen dela gogorazi nahi die herritarrei ikaztegieta Udalak. Tasa eta zergen ordaintzeko helbideratuta dituztenei, banketxetik egun horretan kobratuko zaie.



Ione Gorostazu, Gurea Zine aretoan egin zuen saioan. HITZA

Euskarazko bakarrizketen bigarren saioa, gaur

Berastegiko Ione Gorostazuk irabazi zuen lehen saioa. Gaur 22:30ean hasita bigarren saioa izango da

Erredakzioa Villabona

Villabonako Udalak eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak antolatutako II. Euskarazko Bakarrizketa lehiaketaren lehen kanporaketa pasa den ostiraletan izan zen Gurea Antzokian. Bertan, sei bakarrizketa egile aritu ziren eta epaimahaia, horietatik hiru aukeratu zituen finalerako.

Tartean hiru berastegiar zeuden eta hiruretatik Ione Gorostazuk lortu zuen finalerako txartela. Iazko publikoaren sariaren ostean, aurten finalera sailkatze-

arekin «gustura» agertu da. Bera-rekin batera, hilaren 25ean izango den finalerako, Erika Olaizola eta Eneritz Artetxe sailkatu ziren.

Lau bakarrizketa egile

Gaur 22:30ean hasita egingo den saioan, lau bakarrizketa egile izango dira. Hasiera batean, bost izan behar ziren baina batek huts egin du. Txiki Martinez, Barry Barrez, Nahia Hualde eta Mailu Arruti bakarrizketa egileak igoko dira taula gainera. Epaimahaia, hauetatik bat aukeratu du finalerako saiorako.

Anitzak Hitzak taldeak jarriko du musika bakarrizketa egile bakoitzetik besterako tarreetan. Sarretrak 5 euro balio du eta leihatilan erosteko aukera izango da edota Kixubi eta Amasa kafetegietan.

● Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



ANTTONI OIARBIDE ORMAZABAL

(Domingo Ebezarretaren alarguna)
Atzo hil zen, 92 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Amona joan zera zu bizien artetik
oraln begira zaude zeru ederretik
alaitasuna zendun guztien gainetik
egun handirarte

biloben eta birbolon partetik

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRAL Aarratsaldeko ZAZPIETAN ANDRE MARI JASOKUNDEAREN Parroki Elizan, gorpua aurrean dela, egingo den hiletan-elixkizunera. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

Helbidea: Artziarena etxea (Magdalena auzoa)

Oharra: Gorpua BEASAINGO GOIERRI BEILATOKIAN egongo da.

SEGURA, 2011ko otsailaren 18a

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazte da galduta duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

↓ Kirol jarduera Tolosan**OTSAILAK 19, BIHAR****Saskibaloia.**

- **09:00.** Infantil neskek, TAKE Montesku-Bera Bera, Usabalen.
- **12:00.** Kadete neskek, TAKE Aralar-Bera Bera, Usabalen.
- **16:00.** Senior mutilak, Take Orbela-Kevin, Usabalen.
- **18:00.** Senior mutilak, Bide Bide Ibiza-La Peña, Usabalen.

Areto futbola.

- **16:00.** Laskorain B-Anoeta, Usabalen.
- **17:30.** Neska infantilak, Tolosa C.F.-Zarautz, Usabalen.
- **11:00.** Infantilak, Tolosa C.F.-Aitzgorri, Usabalen.
- **12:30.** Kadeteak I. maila, Tolosa C.F.-Añorga, Usabalen.
- **15:30.** Erregional maila, Tolosa C.F.-Urnieta, Usabalen.
- **16:30.** Erregional ohorezko maila, Tolosa C.F.-Idiazabal, Berazubín.
- **17:30.** Infantil txikiak, Tolosa C.F.-Eibar, Usabalen.

OTSAILAK 20, ETZI**Saskibaloia.**

- **11:50.** Junior, Aralar-Cafes Aitona, Usabalen.

Eskubaloia.

- **11:30.** Seniorrak, Tolosa-Pulpo, Usabalen.

Futbola.

- **11:00.** Alebinak, Tolosa C.F.-Hondarribi, Usabalen.
- **16:30.** Juben. liga nazionala, Tolosa C.F.-Durango, Berazubín.

Eskuz eta zesta puntan hainbat partida asteburuan eskualdean**Erredakzioa**

Hainbat partida jokatuko dituzte eskualdeko pilota elkartekoek asteburuan. Eskuz, Gipuzkoako Txapelketan gaur Zizurkilan 17:30ean hasita hiru partida izango dira: Ziotza-Atxurbide 1 (2. urteko alebinak), Ziotza 1-Intxurre 4 (infantilak) eta Ziotza 2-Aurrera Saiaz 3 (infantilak). Bidegoianen 20:00etan, Aurrera-Saiaz 2-Arrasate 2 (infantilak). Bihar, Aitzon, 16:30ean hasita bi partida: Intxurre 2-Goierri 2 (2. urteko alebinak) eta Intxurre 2-Aurrera Saiaz 1 (infantilak).

Eskuz, Udaberri Txapelketan, gaur Ikaztegiatan, 19:00etan, Intxurre-Txapagain (kadeteak I. maila). Zesta puntan, Gipuzkoako Txapelketan, gaur Tolosan 20:30ean Beotibar 1-Donostia Jai Alai (infantilak).



Mendizabal anoetarra finalerdietan izango da. HITZA

Gomazko Paleta Txapelketako finalerdiak jokoan

Garaipena lortzen duten bi bikoteek Tolosan jokatuko den finalerako txartela lortuko dute

Erredakzioa

Asteburu honetan jokatuko da frontoi motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Saria eta bertan izango da Maider Mendizabal anoetarra. Igandean, Alegiako udal pilotalekuan jokatuko dira bi partidak, lehenengoa 11:30ean hasiko delarik.

Lau bikote izango dira lehian, eta bi partidetak irabazleek finalerako txartela eskuratuko dute. Finala hurrengo larunbatean jokatuko da, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Beraz, jardunaldi garrantzitsua izango da honako hau.

Alde batetik, Espinarrak eta Ruiz de Laramendik Munetaren eta Gracieten aurka jokatuko dute. Bikote garailea hurrengo larunbateko finalean izango da. Bi-

garren partidari, Caset eta Mendizabal ariko dira Etchelecuren eta Montes en aurka. Bi aurrelariak iparraldekoak dira eta bi atzelariak gipuzkoarrak. Hasiera batean Caset eta Mendizabal faboritoak diren arren, bigarrenak «partida gogorra» izango dela esan du. Anoetarra eta bere bikotea partidari galdu gabe iritsi dira finalerdietara. Aurka izango duten bikoteak bigarren partida galdu zuten, baina Etchelecu izandako lesioagatik, partida horretan ordezkioa izan zen bere lekuan. Horregatik, sailkapenean bigarren geratu ziren arren partida honetan gogor borrokatu beharko dute irabazteko.

Mendizabalek partidu ona jokatuz gero irabaztea espero du. Baina, ez da erraza izango Etchelecu gogor ematen baitio pilotari eta gainera aurrealdean azkarrak baita. Montes ere aurkari gogorra izango du atzealdean anoetarrak, ez baitu pilota bat bera ere galtzen. Mendizabalen hitzetan «partida gogorrek espero dira» eta «goi mailako jokoa ikusteko aukera» izango da.

Iritsi zaio bere unea Binakakoan Ekaitz Saralegiri

Amezketarrak txapelketan aurrera egiteko aukerarik ez duen arren, aukera ona izango da berarentzat

Erredakzioa

Binakako Txapelketako bigarren itzuliko jardunaldi berri bat izango da asteburu honetan. Eskualdeko hainbat pilotarik jokatuko dituzte partidak, eta horien artean dago Ekaitz Saralegi amezketarra, Asier Olaizolaren lesioa dela eta Belokiren bikote bezala jokatuko baitu.

Partidak gaur bertan hasiko dira. Promoziozko Binakako Txapelketaren baitan Apezetxeak eta Ceciliok Olaetxea, lizartzararren, eta Albisuren aurka jokatuko dute, Zestoan.

Angelun ere jokatuko dituzte partidak gaur gauean. Xalax eta Barriolak, Saralegi eta Beloki izango dituzte aurkari. Lehengo urtean bezala, Saralegi k ordezkatuko du Asier Olaizola. Leitzan

bizi den goizuetarrak aurreko larunbatean min hartu zuen eskuin belaunean. Lesio honen ondorioz, hiru hilabetetan geldirik egon beharko du Olaizolak. Aukera hau baliatu beharra dauka amezketarrak joko ona erakusteko. Saiklapenaren azken postuan aurkitzen da bikotea, eta horregatik, jada ez dute aukerarik finalerdietara pasatzeko. Barriola eta Xalax, aldiz, bigarren postuan daude bost garaipenekin eta ia finalerdietan aurkitzen dira.

Ez da ohikoa txapelketako partidak Angeluko frontoian jokatzea. Herenegun pilotak aukeratu zituztenean garbiketengatik lurra irristakorra zegoen arren, gaur gauerako egoera hobean egotea espero dute protagonis-tek.

Beste bi leitzarrek bihar jokatuko dituzte beraien partidak Iruñeko Labrit pilotalekuan. Rico IV.aren eta Argoteraren aurka jokatuko dute Jaunarena leitzarrek eta Larringagak. Bengoetxea VI.ak eta Patxi Ruizek Martinez de Irujo eta Merino II.a izango dituzte aurkari.



Saralegi Binakako Txapelketan ariko da Olaizolaren ordez. E.MAIZ

Laugarren txapela eskuratzeko borrokan

Gizonezkoen 600 kiloko lehen jardunaldia jokatuko du Ibarrako sokatira taldeak, asteburu honetan

Erredakzioa Ibarra

Euskadiko sokatira Txapelketan jada hiru txapela banatu dira, eta asteburu honetan laugarrena eskuratzeko norgehiagoka hasiko

dute. Bertan izango da Ibarrako sokatira taldea. Jardunaldi hau bihar izango da Baionan. Euskadiko Sokatira Txapelketako bosgarren saioa jokatuko da, eta gizonezkoen tiraldiak izango dira ikusgai. Txapelketak etenaldia izan zuten joan zen asteburuan, eta larunbat honetan, bidearen erdia osatuko du.

Jardunaldi hau gizonezkoen 600 kiloko lehena izango da. Hiru txapel banatu dira Txapelketan zehar. 680 kiloko Abadiñok ira-

bazi zuen, 640koa Sokarrik eta 540koa Badaiotzek. Beraz, txapela eskuratzeko aukera berri bat izango du Ibarrako taldeak.

Hortaz, bihar, laugarren txapela eskuratzeko norgehiagoka hasiko da, 600 kiloko hain justu ere. Zortzi taldek hartuko dute parte lehia honetan.

Lehenengo sailkapeneko bi jardunaldi jokatuko dira eta sei onenek finala jokatuko dute. 640 kilokoan bezalatsu, jardunaldi bakoitzean lau taldeko bi multzotan

ariko dira lehian. Multzo bakoitzak bere multzoburua izango du, eta gainerako sei taldeak zein multzotan jardungo duten, zozketak erabakiko du. Honela, Abadiñoko izango da lehen multzoko multzoburua eta Amairu bigarren multzoko. Iazko saiklapenaren arabera ezarri dira multzoburuak. Multzo bakoitzak bere li-gaxka jokatuko ondoren, jardunaldiko saiklapena osatzeko tiraldiak jokatuko dira. Gogor egin beharko du lan Ibarrako taldeak.

NEON:ERREGEA

**ASKOREN USTEZ EZ DA OSO ARGIA, BAINA
BERE ORDENAGAILUKO NEONEZKO ARGIEK
FUTBOL-ESTADIO BAT ARGIZTA DEZAKETE**



50 M-KO ZUNTZA

**INTERNETEN
BIZI DIRENEK EUSKALTEL
GOMENDATZEN DUTE**

Batzuek izaki bitxitzat hartzen dituzten arren, etorkizuna eraikitzen ari dira. 50 mega aurrerago doaz. Orain, zuk ere gauza bera egin dezakezu.


euskaltel
zuretzat

 Zuntzaren indarra

Deitu 1717ra - www.internetenbizidirenak.com



Belaunaldi berriak sega zorrotzen trebeak ez direla esan du Xabier Etxeparek. NEREAURBIZU

Xabier Etxepare irundarrak segalaritzaren inguruko tesia egin du. Bertan, erraminta honen azken 50 urteetako historia aztertu du eta ikerketaren emaitzak, ez dira batere itxaropentsuak.

Segaren etorkizuna zalantzan

Erredakzioa

Sega desagertzeko arriskuan dagoela uste du Xabier Etxepare irundarrak. Gorputz Heziketako irakasleak, *Segalaritzaren bilakaera 1955etik 2005era Gipuzkoan: orduko eta gaurko segalariak* izeneko doktore-tesia aurkeztu du Euskal Herriko Unibertsitatean.

Aurrera begira klub baten beharra dagoela uste du Etxeparek. Almitza Sega Elkartearen ari den lana berriz, goraiatzekoa dela dio. Era honetako lehen elkarteak da eta sega-eskolak ematen ditu, besteak beste.

Aldaketak eta arazoak

Tesian baserriak eta sega-jokoak izan duten bilakaera paraleloa aztertu du Xabier Etxeparek: «Sega

apustuek 1980ko hamarkadaren hasieran goia jo zuten. Baserriko produkzio-sistema modernizatzearekin batera, ordea, nekazaritzan segaren erabilera behera egin zuen, bai eta, horrekin batera, sega-jokoan jarduten zuten nekazarien kopuruak ere. Ondorioz, gaur egungo segalariak jada ez dira baserriarrak, lehiatzeko propio trebatzen diren kirolariak baizik».

Irundarrak ikerketa egiterako orduan, 1955 eta 2005 urteen bitarteko datuak bildu ditu; 32 elkarriketa, probetako akta eta egunkarietako albiste bidez.

Ondorioen artean, segalari gazteak sega pikatzen eta zorrotzen ez direla trebeak, entrenatzeko belardirik ez dagoela edo koadrila egokia biltzeko zailtasunak daukela aipatu du Etxeparek. Lehian aritzen diren segalarien artean

ere maila desberdina dagoela aipatzen du.

Argibide gisa, bi DVD ere filmatu ditu irundarrak: Sega egoki jartzeari, teknikari, buruzkoa bata eta, ondo zorrotzeari eta pikatzeari buruzkoa, bestea.

«Segalariak erreminta prestatzeko unean eragozpenak dituzte. Sega baserrietatik desagertuta eta kirol huts bihurtuta dagoenez, gaur egungo segalarietako asko kalekumeak dira, eta ez baserriarrak» azaldu du. Horrenbestez, Etxepareren esanetan, «segan etxean bertan ikastetik kanpoan ikastera igaro dira, eta lehenengo aldiz sega-jokoan par-

Sega nola erabili behar den erakusketako bi DVD atera ditu Xabier Etxeparek

te hartzerako hamar urteko esperientzia izatetik, urtebetekoa edo biko izatera».

Gabezia hauek hainbat arazo ekarri dituzte sega-jokora, eta arazo horiei erantzuteko, araudia etengabe egokitu eta eguneratu behar izan dela dio Etxeparek. Hasteko, segarik onenak Patricio Etxeberria lantegian ekoizten zizutela dio, eta 1985az geroztik ez dituztela gehiago ekoizti, ez eta saldu ere. Zorrozterakoan dauden zailtasunen inguruan, oraingoz, txapelketetan guztien zorrotzaile-lanak egiten dituen pertsona bat jarrita arazoari aurre egin zaiola dio tesi egileak. Baina pertsona hauek adinekoak direnez, erreleborik ez dagoela ohar-tarazi du Etxeparek.

Guzti honengatik, etorkizunean, segalaritzaren inguruko klub baten beharra ondorioztatzen du.

Jose Antonio Gabirondo • Zorroztailea

«Okerren federazioa dagoela iruditzen zait, konplizteagatik dabilela dirudi»

Asier Imaz Gaztelu

Xabier Etxepareren antzeko ondorioetara iritsi da Jose Antonio Gabirondo (Gaztelu, 1948) sega zorrotzaile trebea, bizitakoa oinarri hartuta.

Belaunaldi berrietan, baserriar gutxi omen daude.

Oso gutxi. Bakar batzuk badaude baina gehienak, lehengo zaharren baten gidaritzapean hasitakoak dira. Afizioagatik hasitakoak ere egongo dira, baina baserriarrak, gutxi.

Gauza bat da segan ibiltzea eta bestea, zorrotzen jakitea.

Zorroztaile onak izan dira. Irungo Bengoetxea ongi moldatzen zen. Gero segan, Joxe nire anaia eta biak ibiltzen ziren punta puntan.

Etxetxok ere ongi arraizten zuen. Hauek txapelketetan eurek arraiztea nahi izaten zuten. Nik hasieran, aurkakoa ezagutu nuen. Txapelketan zorrotzailearekin joaten ziren segalariak eta ni ere han ibiltzen nintzen. Gero, norberak zorrotzen zuen eta azkenean, gazteak sartu direnean, berriro zorrotzailearekin irteten dira, ikaratu egiten baitira arraiztarekin.

Zorroztaile gazterik ez da ikusten.

Ni izango naiz gazteenetakoa.

Nola ikasizenuen?

Inor ez da hemen dakienik. Baserriarren artean atera ditut nik nire ondorioak. Larrauldar batek adibidez, eskumutur egokia behar zela esaten zuen. Hori mugitzeko abilitzaderek izan ezean, eta



A. IMAZ

buru pixka bat ere bai, sekula ez zara ona izango. Gaztetan aita zena-rekin mendira joaten nintzen segara. Zorrozten hasi eta batzutan berak kentzen zidan, pasada bat emateko. *Etxekiat ze pasatzen zaiken, gizona bezala arraizten dek, baina ez dek bate zorrotzen, esaten zidan. Gauzak nola diren, orain zer eta, dezente zorrotzen detela esaten didate.*

Pikatu berriz, makinarekin egiten da orain.

Eta eskerrak horri. Lan asko arreratzten da horrela.

Belarrekin ere arazoak daude.

Gaur belar onik ez dago inon.

Oiartzunen agian.

Pikoketan. Lehengo zaharrak bizi direlako eta afizioa dutelako. Apustu, txapelketa eta desafio asko jokatu dira han. Hantxe egiten diote kasu gehien belarrari.

Segak etorkizun iluna du, beraz.

Ni aurrena naizela, ez dago lehengo ilusiorik. Baliarraingo Arkaitz eta poliki ibiltzen dira baina... Okerren federazioa dagoela iruditzen zait. Konplizteagatik bakarrik dabilela dirudi.

Inauterietako txoznak Alondegian egongo dira

Asier Imaz Tolosa

Tolosako Udalak errotazio sistematikoki jarraitzen du eta, azken urteetan, Txoznagunea Euskal Herria plazan egokitu ondoren, aurten Alondegiara itzuliko da. Gerontologiko berriko egoiliarrek gustura egongo dira, beraz, jaiaren zati bat etxetik ikusteko aukera izango baitute. Hala eta guztiz ere, izango da ados ez dago-

enik ere. Txozna Batzordeko ki-deak ere ez daude guztiz gustura: «Euskal Herria plaza jai gunearen erdian aurkitzen da eta Alondegia berriz aparteago; gainera, epaitegiko kamarek jai eremua grabatzeko aukerak kezkatu egingaitu».

Egitaraua prest

Aurten txoznetan sei eguneko egitaraua osatu dute. Ostegun Gi-

zenezan, 12:30ean botako dute su-ziria eta hortik aurrera, afariak, kontzertuak eta hamaika ekitaldi antolatuko dituzte.

Zortzi talde ari dira lanean txoznetan eta Asteartitan, besteak beste, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko dute. 21:00etan afari feminista egingo dute, «meskak eta mutiak, denok batera, Martxoaren 8a ospatzeko», azaldu dute Batzordetik.



Aurten txoznagunea Alondegian egongo da. HITZA

tolosaldeko hitza . iragarkilaburrak . com

Auzokien erantsaldiko EOODA arlo jostakari nagariak salki argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko hitza . iragarkilaburrak . com / 943-65 56 92 telefono zenbakia

Higiezinak

SALDU

Tolosa. Jaki erdigunean, altzariz guztiz horniturako apartamentu salgai. Garaje eta trasteroekin. Interesatuak deitu 667-492557 telefono zenbakia.

Lama/higiezinak

LAN ESKARIK

IRARASKUNTZA

Vilabona. Ingelesko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldetxo edo bakarka. Maitasun-erdiak, irakasle tituladuna. Telefonoa: 664-3602 68 eta posta elektronikoa: continenta56@gmail.com

LAN ESKANTZAK

GAINERAKIDAR

Abeltzindaketa. Alemana eta ingelesez menderatzen dituen pertsona baten bila gabiltza telefono arreta zerbitzuan lan egiteko. Interesatuak deitu 943-378600 telefonoa edo bidali kurrakuluma

[iragarkilaburrak.com](http://www.iragarkilaburrak.com)
panta elektronikoa.

NEGOZIOAK/ TRASPASOAK

ERRENTAN ENKAR

Alegia. Alegia, lempantegi bat abokatu da. Interesatuak deitu: 665-708208 telefono zenbakia.

Leku hau zure iragarkiarene zain dago

ARAMBURU Euzko Administrazioa Higiezinaren kudeaketa

943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aramburunet.net

SALGAI

- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, igogarikarekin, Leitzan, Nafarroa.
- **Lokala.** Forasen kalean, Tolosan.
- **Garaje txikiak eta irekiak.** Tolosa, Ibarra eta Iruan.

ALORATZEKO

- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herroren kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Lamarendin, Tolosan.
- **Txokoak.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ondezko ohea eta terraza, Baratzaren.
- **Lokala** lurre-azuztan, Tolosan.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezinaren zerbitzuak

Aia. Errikueta berriz 3 logela, 2 bainugelak eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizuruzabal. 3 logelako etxebizitza Oio preste onean. 28.500.000 pezeta.

Getaria. Hermerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trasteroarekin, Egoira onean. 41.000.000 pezeta.

Zarauz. Langako plaza (Salbidin). 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.

Zarauz. Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta azoia. Terraza handi hegalaidera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.

Zarauz. Errialdetan. 2 logelako atxiko erabat berritua. Igogailua eta gara. 51.500.000 pezeta.

Zarauz. 4 pisu igogailu gabe. 2 logela berritua beharri dago. 35.000.000 pezeta.

Zestoa. Errialdetan. Etxe bifamiliar batzuan. 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Barkoa kalera, 6 • 20800 Zarautz
Telef: 943-01 07 00 • Mug: 665-71 85 96

Etxebizitza
higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKARLEAN

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, 2 bainugela. Barrioa 300k

GRIBO (barrioan). 2 logela, sukaltzea, egongela, berandu, berandu, 95k

HELIANI 2 logela, sukaltzea, egongela, berandu, Terraza handi. 600k

SALMENTAN

ANTONIO Ibarra Berr. 30m². Albia. Terraza. Garaje, besterik. 100k

ANTIQUO Maita. 2 logela, egongela, sukaltzea, berandu, Barrioa. Igogailua. 48.200.000 pte

AMARA Albia. Terraza. 3 logela, sukaltzea, egongela, berandu. 47.900.000 pte

AMARA Albia. Berriz. 3 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Terraza. 48.700.000 pte

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Terraza. 44.200.000 pte

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Terraza. 48.200.000 pte

AMARA Piztasun. Logela, sukaltzea, egongela, berandu. Garajea. 44.700.000 pte

GRIBO Apartamentu oso zaila. Logela-egongela-sukaltzea, berandu. 28.000.000 pte

INDIALDEA. Urteola. Logela, sukaltzea, egongela, berandu. Barrioa. 46.500.000 pte

INTXAKORROKHO. 2 logela, sukaltzea, berandu. Bista polita. Barrioa. 37.800.000 pte

EGIA Karmengo Arri. Igogailua. 2 logela, sukaltzea, berandu. Barrioa. 41.500.000 pte

MARTUTENE 2 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Barrioa. 31.800.000 pte

HERERIA 2 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Karroja. Barrioa. 36.200.000 pte

LARITZKO Albia. Berriz. 2 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Igogailua. 37.500.000 pte

BORRITA 3 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Terraza. 26.800.000 pte

ALTEA 3 logela, egongela, sukaltzea, berandu. Trastero. Igogailua. 24.800.000 pte

ALTEA 100m². 4 logela, sukaltzea, egongela, 2bainugela. 20m²ko terraza. 40.200.000 pte

ASTIARABUSA 2 logela, sukaltzea, egongela, berandu. 26.000.000 pte

PARAI SAN JUAN Barrioa. 3 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Terraza. Barrioa. 34.500.000 pte

BERNERTIA Errialdetan. 2 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Terraza. 37.900.000 pte

LORENA 150m². 3 logela, sukaltzea, egongela, berandu. Terraza. Berriz. Barrioa. 43.800.000 pte

www.etxebizitza.net
Pozten IV. etan. 4 - DONDOSTIA.

INMOKOSTA
INMOBILIARIA

SALDU

GETARIA. Erdigunean. Zeharo erabat berritua. 2 gela, sukaltze-salaia, bainugela, trastero, halakoa. Dena karpota begira eta eguzkitasun. 284.545 euro (34 milioi).

ZARAUZ. ZIGORRETA kalea. 2 logela, egongela, sukaltzea, bainugela eta terraza. 276.470 euro (46 milioi).

ZARAUZ. VISTA ALGORE. 3 gela, sukaltzea, bainugela, saltoa. 211.490 euro (48,5 milioi)

ZARAUZ. IZUELA. 2 gela, sukaltze-salaia, sukaltze berria, bainugela, trastero. Terraza-azoia. Auzokirik gabek.

ZARAUZ. ARIZTALAIA. 2 gela, saltoa, sukaltze berria, 2 bainugela, halakoa. Trastero. Terraza-azoia. Auzokirik gabek.

ZARAUZ. IZUELA. 3 gela, saltoa, sukaltze berria, bainugela, halakoa. Terraza. Auzokirik gabek.

ORRI. ERRIALDEAN. 2 gela, saltoa, sukaltze berria, bainugela, trastero, dena karpota begira eta eguzkitasun. Garajea eta trasteroak.

ORRI. Familia bakarreko etxe berria. 3 solairu. 130m² eta saltoa. Lantegi eta trasteroak. Terraza-azoia. Auzokirik gabek.

AIA. 60m². 2 gela, saltoa, sukaltze berria, bainugela. Barrio-eremuko. Igogailua. 30m²ko saltoa. Iraili berriz. 237.500 euro (39,5 milioi)

ZESTUA. 5 gela, saltoa, sukaltzea, bainugela, halakoa. Trastero. Igogailua. 396.500 euro

GARAJE SALTUTA. MOYERLAITA. GARAJE ITXIA. URU. BAT.

9 4 3 - 8 3 5 5 1 8
www.inmokosta.com
Oraze, 20 - behea • 20800 Zarautz

zaldibia bada zortedunik

Hirusta
CORRECAF • 101 LOGELAKO

GE
GRUPO EIBAR

3 logelako etxebizitza berriz eta lantegiaren 205.000 euroko hutsa
2 logelako atxiko lantegiaren 190.000 euroko hutsa

iragazten dituzte eta erantsaten

lazkao HEMEN BIZI NAHI DUZU?

Toki Eder
BIZIFITIO • ENKUNTZA

9 4 3 3 1 6 6 1 1
6 2 0 1 1 1 2 7 1
www.grupoelbar.com

1. LOGELAKO ETXEBIZITZA • 190.000 EUROKO HUTSA
2. LOGELAKO ETXEBIZITZA • 215.000 EUROKO HUTSA

20 EGUNEN TERAZA ETA TRASTEROAK 30m²koak

VIA EIBAR Marketing & Inmobiliaria S.L.



16°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurak



Urte askoan!

Eider Calahorra Murua. Bihar 13 urte. Zorionak familiaren partez.



Urte askoan!

Gure **Jonek** dagoeneko 9 urte!! Muxu asko etxekoan partetik eta ondo pasa!



Urte askoan!

Joxe Manuel (Lizartza). Gaur urteak. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan eta batez ere, Eñaut eta Leireren partetik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Alegia.** Odola emateko aukera izango da gaur 19:00etan Sendagile etxean.
- **Tolosa.** Haur liburutegian gaur 17:30ean Hezkuntza eta Heziketaren inguruko jardunaldien baitan bideo emanaldia izango da. Oraingoan Hendrik Vaneekhaute aitaren papera inguruan ariko da. Ondoren solasaldia izango da.
- **Tolosa.** Tolosaldea Garatzenek eta Tolosako Udalak enplegua sustatzeko antolatutako egitasmoaren baitan bi ikastaro antolatutako dituzte langabetuentzako: sukaldaritza laguntzaile-arena eta planoen interpretazio-arena. Izena Tolosaldea Garatzenen eman behar da eta gaur da azken eguna.
- **Ibarra.** Alurr Dantza Taldeko kideek Kaldereroetan txaranga jakoko dituen doinuak dantzatuko dituzte eta horretarako entsegua egingo dute bihar 12:00etan dantza taldearen lokal zaharrean.
- **Asteasu.** Sagain mendi elkar-

teak egun osoko mendi irteera egingo du etzi Arabako Lokizera. Irteera 08:00etan izango da.

- **Ibarra.** Haitzetan Raju mendi taldeak Araba, Bizkaia eta Xiberrua igaro eta gero, Nafarroako mendi irteera egingo du asteburu honetan. Lizarrako lagunekin batera antolatutako irteera da. Haurrentzako ibilalditxo ere prestatu dutela argitu dute antolatzaileek. Larunbatean 08:00etan irtingo dira herriko plazatik.
- **Ibarra.** Udaleko Kirol sailak ireki du 2011 urterako Kirol Jardueretarako diru laguntzak eskatzeko epea. Eskeraak aurkezteko azken eguna martxoaren 15a izango da.
- **Tolosa.** Martxoaren 4a bitarte (egun hau barne) eskatu daitezke Uzturre Asistentzia Zentroko apartamentu balioaniztasunak eskuratzeko eskaerak.

- **Tolosa.** Bihar Humus eta Desordutan taldeen kontzertuak 22:30etik aurrea Bonberenean.
- **Berrobi.** Rei Kimera taldearen kontzertua bihar Gaztetxean 23:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Udal Txistulari Bandaren eta Musika Bandaren kontzertua izango da etzi 11:30ean lurreamendi egotzan.

INAUTERIAK

- **Lizartza.** Bihar hasiko dira Lizartzako Inauteriak eta datozen asteburuan izango dute jarraipena. Gaur 12:00etan Gibel Jatea izango dute, ondoren antzerkia izango da eta baita dantza saioa ere Otsolar dantza taldearen eskutik.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide honetan www.tolosakoudala.org/inauteriak/.
- **Tolosa.** Aiz Orratz elkarteak urtero antolatzen duen mozorro lehiaketan parte hartzeko epea astelehenean irekiko dute eta hilaren 25a arte egongo da zabalik. Elkartean bertan egin behar da 18:00etatik 20:00etara.

Irudia Ibarra



SARIA ARTOLARENTZAT

Alurr dantza taldeak jakinarazi duenez Amaia Artola izan da urteroko zozketako saritua. Elduaingoa da baina Txarman bizi da eta bere iloba eta Alurreko kide June Mariezkurrenak saldu zion zenbakia. Ramon Garciak egindako bi jantzi edo 420 euro zozketatu dira, eta sarituak jadanik jaso du bere saria: jantzi bat eta 210 euro. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

BIHAR

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Kale Nagusia, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.


ETZI

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



**PILAR GOYA
ESTETIKA ZENTROA**



Errota 2, behea • Villabona
Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laserra (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat)
- Aurpegi-tratamendua
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xafak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinen eta eskuen tratamendu eta edertasuna (irraupen luzeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarrek argizariarekin